

Mugimendu Modernoa: Kultura Ondarea eta Gizartea KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO DEIA

ZIENTZIA BATZORDEA José Ángel Sanz Esquide • José Ángel Medina Murua • Margherita Sani
Bixente Taberna Irazoki • Victoria Ateca Amestoy • João Carlos dos Santos

Komunikazio proposamenak jasotzeko epea ireki da, eta ondoko hiru arlo tematiko hauetan aipaturiko alderdietako batzuen buruzkoak izango dira:

1. MUGIMENDU MODERNOA ETA GARAPEN SOZIALA. Aldaketa soziologiko, ekonomiko, zientifiko eta artistiko handien eraginez sortu zen mugimendu modernoa deiturikoa, eta gerren arteko garaiko gertakizunak dira, berriz, estilo berriaren hondo-irudia, ("funtzionalismoa", "nazioarteko estiloa"...), XIX. mendeko gizartearen gainbehera, makinaren 1. adinari ongi etorria, 1929ko burtsaren kraka, zinea eta masen kultura edo adierazpen politikoak eta artistikoak, esate baterako, horiexek markatzen baitute XX. mendearen bilakaera. Gero, II. Mundu Gerraren ondoren, "arrazionalismotik eta organizismotik" "brutalismo berrira" doa estilo berri horren zehaztapena, gizarte eta politika alorretako aldaketekin hertsiki loturik.

2. HERRITARREN INPLIKAZIOA: HEZIKETA, INFORMAZIOA, HEDAPENA. Hiri eta arkitektura ondarearen babesaren inguruan erabakiak hartzean, herritarren parte hartzeak bere esanahi osoa hartzen du Henry Lefebvre-ren "Hiria izateko eskubidea" adierazpenean, haren irismena eta esanahiak aztertzeke zabalik badaude ere oraindik, hiriaren gaineko teoria garaikidearen barnean. Parte hartzeke eta kultura ondarea babesteko prozesuak biltzen ditu gaur egun hiri plangintzak, eta herritarrek eta profesionalak parte hartu behar dute kultura eta ondare baliabideen kudeaketan, ondarearen beraren gainean jabetza zentzu handiagoa sortuz, eta esku hartzen duten kultur erakundearen iraunkortasuna bultzatuz.

3. KULTURA ONDAREAREN KUDEAKETA ETA EKONOMIA. Gaurko gizartearen eraldaketa azkarrek, globalizazioarekin, krisi ekonomiko eta sozialarekin nahiz balioen krisiarekin eta IKTen erabilerekin garapen esponenzialarekin loturik, eragin handia dute kultura ondareari nola ekin zehazterakoan, hartan esku hartzeke moduan eta hura erabiltzeke eta bizitzeko eran, duen ahalmen ekonomiko eta erabilera iraunkorra aprobetxatuz. Horrelako testuinguruak berririki egin du kultura ondasun higiezinak baloratzeko teknikei eta "kultur balioa" eskuratzeari buruzko eztabaida. Horregatik, Kulturaren Ekonomia bezalako diziplinek proposaturiko tresnak guztiz adierazgarriak dira ondasun horien kudeaketaz arduratzen diren eragileentzat.



2016ko ekainak 15: komunikazio proposamenak jasotzeko azken eguna (gehenez 2100 karaktere)
2016ko uztailak 5: Zientzia Batzordeak komunikazioak aukeratzea
2016ko uztailaren 7tik aurrera: onartutako komunikazioen egileei jakinaraztea
2016ko urriak 18: onartutako komunikazioaren behin betiko dokumentua aurkezteke epea

Honako informazio hau aurkeztuko da komunikazio proposamenekin batera:

- Aurkezte eskaera, behar bezala betea.
- Laburpena (gehenez 2100 karaktere) biltzarreko edozein hizkuntzatan (gaztelaniaz, euskaraz edo portugesez) eta ingelesez.
- Curriculum vitae laburra eta argitalpenak

Posta elektronikoz: papers.docomomolberico2016@coavn.org

Posta ziurtatu/mezulari bidez: EHAEOko GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA - Frantzia pasealekua 11, 20012 Donostia

Biltzarraren informazio osoa hemen: www.docomomo2016.coavn.org